

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko urtarrilaren 16a

5. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Faltzesko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Vianako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (16. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Faltzesko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Comptos Ganberak Faltzesko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukiarari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Faltzesko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Aitzinsolasa (2. or.).
- II.** Helburua (4. or.).
- III.** Irismena (4. or.).
- IV.** Iritzia (5. or.).
 - IV.1. Kontu Orokorra (5. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (5. or.).
 - IV.3. 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoera (5. or.).
- V.** Udalaren 2010eko kontu orokorraren laburpena (7. or.).
 - V.1. Udalaren aurrekontuaren betetze-egoera. 2010eko ekitaldia (7. or.).
 - V.2. Udalaren 2010eko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (7. or.).

V.3. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2010eko abenduaren 31n (8. or.).

V.4. Udalaren 2010eko abenduaren 31ko egoerari buruzko balantzea (8. or.).

V.5. Udalaren 2010eko galeren eta irabazien kontua (9. or.).

VI. Udalari buruzko iruzkin, ondorio eta aholkuak (10. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (10. or.).

VI.2. Langile-gastuak (10. or.).

VI.3. Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak (11. or.).

VI.4. Inbertsioak (12. or.).

VI.5. Transferentzien ondoriozko gastuak (12. or.).

VI.6. Diru-sarrerak (13. or.).

VI.7. Finantza-zama (14. or.).

VI.8. Hirigintza (15. or.).

VI.9. Gorabeherak eta zalantzak (15. or.).

1. eranskina: Udalaren organigrama, 2010eko abenduaren 31n (15. or.).

I. AITZINSOLASA

Udalbatzak, 2011ko irailaren 29ko Osoko Bilkuran, Comptos Ganberari 2010eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txosten bat eskatzea erabaki zuen.

Eskatutakoak betetzeko, 2011ko azkeneko hiruhilabetekoan, Ganbera honen 2011ko Fiskalizazio Programan sartu zen azterlan hori egitea. 1998ko irailean, Ganbera honek txosten bat igorri zuen Udalaren 1997ko ekitaldiko kontuei buruz.

Faltzesko udalerrriak 2.650 biztanle zituen, 2010eko urtarrilaren 1ean. Honako hauek dira 2010eko abenduaren 31ko kopuru ekonomiko aipagarriak:

Zenbatekoa		Langileak, 2010-12-31n	
Erakundea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	
Faltzesko Udala	3.882.962	3.874.942	25

Udalak ez du sozietate publikorik eratu, eta honako mankomunitate hauetan hartzen du parte:

- Goi Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateko partaidea da, eta horren bidez ematen dira hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak.

- Erdialdeko Erriberako Kirol Mankomunitatea, eta horren bidez kudeatzen dira eskualdeko

beste udal batzuekin batera egiten diren kirol-jarduerak.

- Azkoien aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri direnak dira:

Zerbitzua	Udala	Mankomunitatea	Zerbitzu kontratuak
Zerbitzu administratibo orokorrak	X		
Udaltzaingoa	X		
Musika-eskola			X
Etxez etxeke laguntza-zerbitzua		X	
Hilerria	X		
Hirigintza	X	(*)	
Uraren presio handiko hornidura	X	X	
Uraren behe presioko hornidura	X		
Hiri-hondakinak		X	
Bideetako garbiketa		X	X
Oinarrizko gizarte-zerbitzua		X	
Udal-kiroldegia.	X		
Igerilekuak	X		
Kirol-jardueren kudeaketa	X		
Zentro mediko eta hezkuntzako mantentze-lanak	X		
Liburutegia	X		
Udalaren futbol-zelaia	X		
Gizarte Etxea	X		
Kontsumitzaileen informaziorako zerbitzua			X

(*) Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Tafallako eskualdeko Bulegoaren laguntza puntuala izaten da

Faltzesko Udaleri 2010eko ekitaldian aplikatzea zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hau izan da:

- Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko uztailaren 2ko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publiko- en Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuena.
- Langileen Estatutuari buruzko 1/1995 Errege Lege Dekretua.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituenak.
- Urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege Dekretua, Enplegurako eta Tokiko Iraungarritasunerako Estatuko Funtsa sortu zuena.
- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak, Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak, dira araubide juridikoa ezartzen dutenak.
- Udalaren 2010eko aurrekontuaren exekuzio-oinarriak eta gainerako barne arauak.

Txosten honek sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Udalaren kontu orokorrari buruz dugun iritzia agertzen dugu; bosgarrenean, berriz, kontu horren laburpen bat jaso dugu. Seigarrenean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruz-

kin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira. Honekin batera doan eranskinean, Udalaren 2010eko abenduaren 31ko organigrama bildu dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko langileei, lan hau egiteko eman duguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Faltzesko Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

- Gure iritzian, Faltzesko Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzea den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpidei jarraituz betiere.

- Udalak 2010an izandako jarduerari aplikatzea zaion legediaren betetze-maila.

- Udalaren finantza-egoera 2010eko abenduaren 31n.

Txostenari, Udalak ezarritako barne kontroleko sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate-nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu dizkiogu.

III. IRISMENA

Comptos Ganberak Faltzesko Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Honako osagaiak dauzka:

- Erakundearen aurrekontu-betetzearen egoera-orria.

- Ekitaldiko aurrekontu-emaitzaren eta entitatearen diruzaintza-gerakinaren egoera-orria.

- Entitatearen egoeraren balantzea eta galeren eta irabazien kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak: memoria, zorraren egoera eta kontu-ikuskatzailearen txostena, besteak beste.

Lan hau Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz osatu da. Prozedura horien artean laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa erabili dira.

Zehazki, aurrekontuen eta finantza egoera-orri- en edukia eta koherentzia eta aplikaturiko oinarri-ko prozedurak aztertu dira; orobat ebaluatu dira Udalaren antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko alderdi nabarmenenak ere.

2010eko abenduaren 31n zuen finantza-egoera aztertze-ko, gisa honetako lanetan erabiltzen dituen magnitude, ratio eta adierazleak aplikatu ditu ganbera honek.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoari loturik, Faltzesko Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren beraren erantzukizuna da kontu horren prestaketa eta edukia.

Gure azterketa-lanetik ondoko iritzi hau atera dugu ondorioz:

IV.1. KONTU OROKORRA

Faltzesko Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki jasotzen ditu alderdirik behinene- tan gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likida-

zioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio eskaintzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -iriz- pideen arabera.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke Udalaren jarduera ekonomiko eta finantza- riora oro har legezkotasun-printzipioari jarraituz garatu dela.

IV.3. 2010eko ABENDUAREN 31ko FINANTZA- EGOERA.

Faltzesko Udalak 3.601.716 euroko gastuko eta 3.880.643 diru-sarrerako hasierako aurreikuspe- nak ditu. Alde hori 2009. urteko diruzaintza-geraki- naren saldo negatiboa berdintzeko egina da. Hasi- erako aurreikuspen honek gorakada bat izan zuen, aurrekontuan 1.556.441 euroko aldaketa bat egi- nez –gastuetan ehuneko 43ko gorakada bat–, inbertsio errealean eta haien finantzaketan emen- dioetan justifikatuta.

Aitorturiko betebeharrak 3.882.962 eurokoak dira (3.417.343 euro 2009an), eta ehuneko 75eko exekuzio-maila eta ehuneko 91ko ordainketa-ehu- nekoea ageri dute. Diru-sarrerei dagokienez, aitor- tutako betebeharrak 3.874.942 eurokoak dira (3.917.400 euro 2009an), eta ehuneko 71ko bete- tze-maila eta ehuneko 93ko kobrantza-ehunekoa ageri dute.

Aurrekontu-emaitza doitua 137.626 eurokoa da. 2009. urtean 145.170 eurokoa izan zen emaitza hori.

Gastuen izaera	Zenbatekoa	Finantza-bidea	Zenbatekoa
Langileak	25	Tributu bidezko diru-sarrerak	29
Bestelako gastu arruntak	32	Transferentziak	46
Inbertsioak	21	Ondare bidezko diru-sarrerak	10
Finantza-zama	22	Bankuen maileguak	15
	100		100

2009an 1.104.000 euroko kreditu bat hitzartu zen; 0-3 urteko haurrentzako eskola-zentro bat eraikitzea zen helburu nagusia. 2009an 450.000 euro xedatu ziren, eta 2010ean 90.000 euro. Diru-laguntzak lortzeko zeuden zailtasunak ikusirik, eskola-zentroa ez eraikitzea erabaki zen. Hutsegite batez, erabili gabeko saldoa kitatu ordez, banketxeak kreditu osoa amortizatu zuen eta, geroago, hutsegite hori zuzentzeko, 564.000 euroko beste kreditu bat eman zuen, sarreraren aurrekontuaren likidazioan jasota dagoen bezala. Aurrezki garbia kalkulaterakoan ez da kontuan hartu eragiketa hori.

Aurrezki gordina (diru-sarrera arruntak ken funtzionamendu gastuak) positiboa izan zen 2010an (509.213 euro). 2009an, berriz, 440.950 eurokoa izan zen. Aurrezki garbia (aurrezki gordina ken finantza-zama) 2009an 115.760 eurokoa izatetik 2010ean 178.901 eurokoa izatera igaro da.

Diruzaintzako gerakina 307.878 milioi eurokoa da guztira (2009an 271.542 eurokoa izan zen). Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina edo hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko ahalmena neurtzen duen adierazlea positiboa izan zen: 69.210 euro (2009an negatiboa izan zen: 57.785 euro).

Balantzeko eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak 358.605 euro ziren 2010eko abenduaren 31n (386.988 euro 2009ko abenduaren 31n)

Epe luzeko zorra, 2010eko abenduaren 31n, 3.440.251 eurokoa zen (2009ko abenduaren 31n 3.697.934 eurokoa zen). Zor bizi hori erakunde honen diru-sarrera arrunt guztien ehuneko 127 da; portzentaje hori gaur egun zor berriak egiteko dagoen legezko muga, ehuneko 75, baino askoz ere gorago dago.

Esan beharra dago, hala ere, 2010eko abenduaren 31n ordaintzeko dagoen zorraren ia ehuneko 70ek ia amortizazio-egutegi lineal bat duela 2010eko ekitaldira arte.

Gaur egungo krisi ekonomikozko egoerak eta Nafarroako Udalen artean banatzeko transferentzien bolumenari buruz ikusten den zalantza-egoerak finantzatzeko zailtasunak eragin liezazkioke etorkizun hurbilerako. Horregatik, bada, eta epe ertain baten barrurako bideragarria izango dela bermatzeko, bere gastu arruntak murrizteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko neurri sail bat aplikatzen jarraitu beharko du Udalak.

V. UDALAREN 2010EKO KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, Udalaren 2010eko kontu orokorrak jasotzen dituen egoera finantzarioen laburpen bat ematen dugu.

V.I. UDALAREN AURREKONTUAREN BETETZE-EGOERA. 2010eko EKITALDIA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako betebeharrak	Betetzea (%)	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeke dagoena
1 Langile-gastuak	992.587	(13.231)	979.356	963.412	% 98	952.204	% 99	11.208
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	971.807	(12.500)	959.307	1.034.307	% 108	955.783	% 92	78.524
3 Gastu finantzarioak	72.485	(6.000)	66.485	57.067	% 86	57.067	% 100	-
4 Transferentzia arruntak	197.886	4.425	202.311	192.383	% 95	169.444	% 88	22.939
6. Inbertsio errealak	1.077.521	1.008.931	2.086.452	814.172	% 39	587.036	% 72	227.136
7 Kapital-transferentziak	5.850	3.000	8.850	8.376	% 95	8.367	% 100	9
9. Finantza-pasiboak	283.580	571.816	855.396	813.245	% 95	813.245	% 100	-
Gastuak, guztira	3.601.716	1.556.441	5.158.157	3.882.962	% 75	3.543.146	% 91	339.816

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubideak	Betetzea (%)	Kobrantzak	Kobrantzak (%)	Kobratzake dagoena
1 Zuzeneko zergak	629.781	-	629.781	634.913	% 101	604.159	% 95	30.754
2 Zeharkako zergak	45.000	-	45.000	80.342	% 179	73.815	% 92	6.527
3 Tasak eta bestelako diru-sarrerak	392.335	-	392.335	416.381	% 106	393.862	% 95	22.519
4 Transferentzia arruntak	1.244.197	2.510	1.246.707	1.172.231	% 94	1.064.157	% 91	108.164
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	405.405	-	405.405	395.358	% 98	378.498	% 96	16.860
7 Kapital-transferentziak	864.592	485.465	1.350.057	611.627	% 45	539.744	% 88	71.883
9. Finantza-pasiboak	299.333	1.068.466	1.367.799	564.000	% 41	564.000	% 100	-
Diru-sarrerak guztira	3.880.643	1.556.441	5.437.084	3.874.942	% 71	3.618.235	% 93	256.707

V.2. UDALAREN 2010eko EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA

Kontzeptua	2010eko ekitaldia
+ Aitorturiko eskubide garbiak	3.874.942
- Aitorturiko betebeharrak garbiak	3.882.962
= Aurrekontu-emaizta	(8.020)
Doitzeak	
- Finantzaketaren desbideratze positiboa G.F.A.	(19.190)
+ Finantzaketaren desbideraketa negatiboa G.F.A.	164.837
+ Diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak	-
= Aurrekontu-emaizta doituak	137.626

V.3. DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2010eko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2010eko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	363.437
+ Dirusarreren aurrek. Aurtengo ekitaldia	256.707
+ Dirusarreren aurrek. Itxitako ekitaldiak	117.393
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	95.178
Gastuak ordaintzea	
- Bilketa zaileko eskubideak	(105.945)
- Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	-
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	491.707
+ Gastu-aurrek. Aurtengo ekitaldia	339.816
+ Gastu-aurrek. Itxitako ekitaldiak	7.008
+ Diru-sarreren itzulketa	-
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	144.883
+ Diruzaintzako funts likidoak	358.605
+ Finantziazioko Desbideratze Metatu Negatiboak	77.648
= Diruzaintza-gerakina, guztira	307.878
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	13.302
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	225.366
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	69.210

V.4. UDALAREN 2010eko ABENDUAREN 31ko EGOERARI BURUZKO BALANTZEA

Aktiboa

Deskribapena	2010	2009
A Ibilgetua	17.507.765,62	16.693.593,48
1 Ibilgetu materiala	7.367.857,05	6.960.149,73
2 Ibilgetu ez-materiala	3.159.829,63	3.121.609,07
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	6.603.505,98	6.235.888,12
4 Herri-ondasunak	376.557,03	375.930,63
5 Ibilgetu finantzarioa	15,93	15,93
C Zirkulatzailea	841.968,19	829.755,22
8 Zordunak	483.363,48	442.767,30
9 Kontu finantzarioak	358.604,71	386.987,92
Aktiboa, guztira	18.349.733,81	17.523.348,70

Pasiboa

Deskribapena	2010	2009
A Funts berekiak	14.403.455,19	13.339.606,23
1 Ondarea eta erreserbak	9.041.456,41	8.676.626,69
2 Emaizta ekonomikoak (etekina)	455.459,75	356.377,07
3 Kapitaleko diru-laguntzak	4.906.539,03	4.306.602,47
C Epe luzeko hartzekodunak	3.440.250,98	3.697.934,19
5 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailuak	3.440.250,98	3.697.934,19
D Epe laburrerako hartzekodunak	506.027,64	485.808,27
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	505.925,12	485.738,43
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	102,52	69,84
Pasiboa, guztira	18.349.733,81	17.523.348,70

V.5. UDALAREN 2010eko GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA

ZORRA			HARTZEKO		
Deskribapena	2010	2009	Deskribapena	2010	2009
3 Hasierako izakinak	-	-	3 Bukaerako izakinak	-	-
39 Izakinen balio-galtzeen hornidurak	-	-	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-
60 Erosketak	48.439,74	-	70 Salmentak	348.906,77	343.790,30
61 Langile-gastuak	987.238,03	1.049.771,83	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	456.252,58	451.764,21
62 Gastu finantzarioak	57.066,98	80.345,71	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuoak	580.589,11	534.098,04
63 Tributuoak	8.477,84	7.609,51	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	133.762,59	129.601,49
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpo zerbitzuak	953.564,02	1.020.302,31	75 Ekitaldiko emaitzetara aldaturiko diru-laguntzak eta dohaintzak	133.625,19	282.702,00
65 Gizarte prestazioak	-	-	76 Transferentzia arruntak	1.034.954,67	957.516,19
66. Ustiapeneko diru-laguntzak	-	-	77 Kapitalaren gaineko zergak	16.334,52	4.458,52
67 Transferentzia arruntak	192.382,90	188.982,29	78 Bestelako diru-sarrerak	6.579,86	3.685,64
68 Kapital-transferentziak	8.376,03	4.227,67	79 Beren helbururako aplikaturiko hornidurak	-	-
69 Amortizazio eta horniduretarako hornidura, ekitaldikoak	-	-			
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	455.459,75	356.377,07	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	-	-
Guztira	2.711.005,29	2.707.616,39	Guztira	2.711.005,29	2.707.616,39

VI. UDALARI BURUZKO IRUZKIN, ONDORIO ETA AHOLKUAK

Ondoren, Comptos Ganbera honen aburuz, Udalak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako jarraitu behar dituen ondorioztapen eta aholku nagusiak aipatzen dira.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2010eko ekitaldirako aurrekontua 2009ko abenduaren 21ean onetsi zuen, behin-behineko, Udaltzaren Osoko Bilkurak.

Kontuen onespina Udaltzaren 2011ko ekainaren 30eko Osoko Bilkuran eman zen. 2011ko urriaren 14an igorri zen onepen hori Nafarroako Gobernuaren Toki Administrazioako Departamentura, legezko 15 eguneko epea igarota.

Aldaketa gehienak inbertsioen kapituluari buruzkoak dira, zeina, 1.077.521 euroko hasierako kredituak izatetik 2.086.452 euroko behin betiko aurrekontua izatera igaro baita.

Atxikitze juridikoaren poltsak ez dira kapitulu guzti-guztietan beti-beti bete. Gastuen aurrekontuko 2. kapituluari –“Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak”– aitortutako betebeharrak behin betiko kredituak baino handiagoak izan dira.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorrak ezartzen du ezen, diru-

laguntzak eman aurretik, toki-korporazioek aurrekontuaren betetze-oinarrien esparruan onetsi beharko dituztela diru-laguntzak ematea arautzen duten oinarriak, dela diru-laguntzei buruzko ordenantza orokor baten bitartez, dela diru-laguntzen modalitate bakoitzerako berariazko ordenantza baten bitartez. Udalak ez du diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorrik.

Aholkuok ematen ditugu:

- *Kasuan kasuko aurrekontu-aldaketak izapidetu eta onetsi behar dira, aurrekontuko diru-esleipenak aski ez baldin badira.*

- *Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onestea.*

- *Kontuak igortzeari dagokionez, indarrean dagoen araudian aginduta dauden epeak betetzea.*

VI.2. LANGILE-GASTUAK

Langileen kapituluari aitortutako betebeharrak 963.412 eurokoak dira; alegia, 2010eko ekitaldiko aitortutako gastu guztien ehuneko 25 eta gastu arrunten ehuneko 43. Ehuneko 98ko neurri batean bete dira, eta 2009ko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 6 egin dute behera.

Hona kontuak banakatuta, 2009koekin alderatuta:

	Aitortutako betebeharrak		Aldaketa, ehunekotan
	2010	2009	
Goi-karguak	19.426	19.939	(% 3)
Funtzionarioak	354.279	414.032	(% 14)
Langile finkoak	167.448	166.318	% 1
Aldi baterako lan-kontratupekoak	117.570	95.671	% 23
Gizarte-zamak	304.689	331.673	(% 8)
1. kapitulua, guztira	963.412	1.027.633	(% 6)

Lan-kontratupeko langileen lansariei dagokien zenbatekoa 167.448 eurokoa da, langile funtzionarioen lansariei dagokiena 354.279 eurokoa, bestelako langileen lansariei dagokiena 117.570 eurokoa eta gizarte-zamei dagokiena 304.689 eurokoa. Azken horien artean azpimarratu beharrekoa da Udalaren eta probintziaren montepioen gastua; guztira, 172.213 euro egiten duena; hau da, kapituluko guztizkoaren ehuneko 18.

Langile-gastuek aurreko urtekoekin alderatuta izan duten beherakada hori funtzionario batek

erretiroa hartu izanak eta Lantegi Eskolako langileen kontratazio-aldia luzatu izanak (2009ko maiatzaren 11tik 2010eko azaroaren 11 arte) esplikatzen dute.

Udalaren plantilla organikoaren onespina 2009ko abenduaren 21an eman zen. Udalak 2010erako duen plantilla organikoak 22 lanpostu dauzka. Horietatik bat ere ez dago hutsik. Hona lanpostu horien taula:

	Lanpostuak	Lanean	Lanpostu hutsak
Funtzionarioak	13	13	-
Lan-kontratupekoak	8	8	-
Bitartekoak	1	1	-

Hau da, langile efektiboak, plantilla organikoa, 22 langile dira: 13 funtzionario, 1 aldi baterako eta 8 lan-kontratupeko.

2010ean, ofizial administraria izateko bi lanpostutarako oposizio-lehiaketa murriztua izapidetu zen.

Esandako langile horiez gainera, Udalak maiz kontratatu izan ditu aldi baterako langileak. Era horretako langileen kontratazioan ez da beti-beti jasota ageri kontratazio hori merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera egin izan denik. Horri dagokionez, bada udal idazkaritzaren txosten bat, aldi baterako kontratazioen arloan gertatzen diren egoera irregularrak agerian jartzen dituena.

Udalak emandako informazioak erakusten duenez, 2010ean 30 pertsona aritu da lanean bertan, plantilla organikoa, aldi baterakoak eta bekadunak, denak batera hartuta. Langile horiei hiru ordainsari mota aplikatzen zaizkie:

- Funtzionarioak: foru legedian ezarritako ordainsariak dauzkate.
- Lan-kontratupeko langileak eta aldi baterakoa: Nafarroako Gobernuaren lan-kontratupeko langileen hitzarmen kolektiboa.

Udal langileei 12/2010 Foru Legean aurreikusitako murrizketak aplikatu zaizkie. Murrizketa horien zenbatekoa 7.200 eurokoa izan da, gutxi gora-behera.

Langile-gastu horiei buruz egindako azterketatik eta ofizial administraria izateko bi lanpostu betetzeko espedientetik ondorioztatzen da, orokorrean, indarrean dauden arauak egoki betetzen direla. Edonola ere

Aholku hauek ematen ditugu:

- *Merezimendu eta gaitasun printzipioak aplikatu behar dira langileak aldi baterako hautatzera-koan, eta xede horretarako eginiko hautapen probak egoki artxibatu behar dira.*
- *Langile-espeditenteak osatu behar dira familia-egoerari buruz eginiko aitortpenarekin.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTUAK

Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak 1.034.307 eurokoak izan dira 2010ean; alegia, ekitaldiko gastuetarako aurrekontu osoaren ehuneko 27 eta gastu arrunten ehuneko 46. 2009. urtearen aldean, ehuneko 1 gutxitu dira. Hona atalka banaturik:

	2010ean aitortutako betebeharrak	2009an aitortutako betebeharrak	Aldea 2010/2009
Errentamenduak	1.368	810	% 69
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	213.554	199.545	% 7
Materialak, horniketak eta beste	788.096	824.038	(% 4)
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	16.985	19.413	(% 12)
Argitalpen-gastuak	3.397	2.726	% 25
Aurrekusi gabeko gastuak	10.908	3.519	% 210
Guztira	1.034.307	1.050.051	(% 1)

2010eko ekitaldian ez da nabarmentzeko moduko adjudikaziorik egin ez kontratazio-espeditenteen eskaintzarik egin.

Kapitulu honetako gastuen lagin batez egin den azterketatik egiaztatu denez, dagokien fakturen bidez justifikaturik daudela eta behar bezala kontabilizatu direla ikusi da.

VI.4. INBERTSIOAK

2010rako aurrekontuko inbertsioen kapituluaren betetze-maila ehuneko 39koa izan da (814.172 euro, guztira). Gastu honek ekitaldi honetan aitortutako betebeharren ehuneko 21 egiten du.

Deskribapena	Mota	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenen kopurua	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa kenduta)
Udaleko Obra eta Azpiegituretako Planeko lanak	Obrak	Irekia (Europar Batasuneko atalasetik beheiti)	234.551	13	169.265
Ur beltzen biltegiko minibiltzailea	Obrak	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	136.994	4	95.896

Horrez gainera, 2010eko ekitaldian Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ubideko Eremu Ureztagarrian sartzen diren Faltzesko Udaleko herri-lurretan ureztatzeko sarearen Proiektua onartu du (2010eko maiatzaren 13ko erabakia), Riegos de Navarra, S.A. tresna-enteari eman dio lan horiek egiteko ardura. Udalari, araudiak agintzen duenez, eremu ureztagarrian sartzen diren lursailengatik 105.299 euroko azken zenbateko bat ordaintzea dagokio, eta zenbateko hori inbertsio gisa kontabilizatzen da.

Beste alde batetik, Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatuko Funtzaren kontura (E Plana) egindako 10 obra txiki aztertu ditugu. Obra horien kontu-zenbatekoak txikiak dira, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko Estatuko 30/2007 Legeak arautzen du obra horien esleipena. 2010eko ekitaldian kontzeptu honen arabera aitortutako guztizko gastua 267.138 eurokoa izan da.

Aztertutako lanetik ondorioztatzen da ezen, oro har, aplikatzekoak diren kontratuei buruzko legeen arabera izapidetu direla espedienteak.

VI.5. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferentzia arruntak 200.759 eurokoak izan ziren 2010ean, eta ehuneko 95ko betetze-maila izan zuten. Aitorturiko betebeharrak guztien ehuneko 5 egiten dute, eta ehuneko 4 igo dira 2009aren

Inbertsio errealetarako aurrekontuaren betetze-maila hori aurreikusita zeuden zenbait lanaren hasiera atzeratu delako eta 2010eko ekitaldirako aurrekontuetan aurreikusita zeuden zenbait inbertsio erreale gauzatu ez delako gertatzen da; gauzatu ez diren inbertsio horien artean bereziki nabarmentzekoa da 776.787 euroko aurrekontua zuen 0-3 urte bitarteko haurrentzako eskolarena.

2009an erregistratutako inbertsioen aldean (821.260 eurokoak izan ziren), ehuneko bateko jaiatsiera izan da.

Kapitulu honetako gastuen lagin bat eta ondoren aipatzen diren kontratazio-espeditenteak aztertu dira (zenbatekoak BEZik gabe agertzen dira):

aldean. la transferentzia guztiak transferentzia korronteak izan ziren.

Transferentzia nagusiak udal hau partaide den mankomunitateak finantzatzeko (89.766 euro), familiei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei (102.617 euro) eta familiei etxebizitza zaharberritzeko ekarpenak egiteko (8.376 euro) eginak izan ziren.

- Lehiaketa bidez esleitzen diren diru-laguntzei (irabazi-asmorik gabeko erakundeentzakoak) dagokienez, exekuzio-oinarriek gaingiroki arautzen dute haiek nola eman, baina ez dira ezartzen haiek emateko irizpide egokiak, eta ez da aipatzen, ezta ere, beste diru-laguntza publiko batzuekiko egon daitekeen bateragarritasuna. Arau gisa, aurrekontuko dirua eskatzaile guztien artean banatzen da. Ez da jasota ageri banaketarako aplikatu den oinarririk. Egin den azterketa honetatik ondorioz ateratzen da ezen gastu horien izapidetzea egokia dela, orokorrean. Halere, ikusten dugu exekuzio-oinarrietan jasotakoa ez dela beti exijitzen.

Hori guztia ikusita, aholkuok ematen ditugu:

- *Zorrotz bete behar da irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako diru-laguntzei buruz exekuzio-oinarrietan ezarritakoa.*

- *Banaketa-irizpideak ezartzea diru-laguntzak, Udalak lehentasunezkoztat jotzen dituen xedeei erreparatuta, emateko. Halaber, diru-laguntza horiek beste administrazio publiko batzuek emanda-koekin bateragarriak ote diren aztertu behar dela.*

VI.6. SARRERAK

2010eko ekitaldian aitortutako eskubideak 3.874.942 eurokoak izan dira; horietako ehuneko 70 eragiketa arruntei dagozkie, eta gainerakoa, ehuneko 30, kapital-eragiketei.

Diru-sarreraren betetze-maila ehuneko 71ekoa izan da; puntu honi dagokionez, ondoko betetze-portzentaje hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Transferentzia arruntak; ehuneko 94ko betetze-portzentajea izan dute, lantegi-eskolaren funtzionamendurako jaso diren diru-laguntzetan betetze-portzentaje txikiagoa izan delako.
- Kapital-transferentziak; ehuneko 45eko betetze-portzentajea izan dute, aurrekontuetan sartuta-

ko inbertsio erreal batzuk bete ez direlako (2-0 urte bitarteko haurrentzako eskolarenak, zehazki; 461.273 euroko aurrekontua zuten guztira) eta lizitazioetan izen diren bajengatik eta Udaleko Obra eta Azpiegituretako Planeko lanen exekuzio-erritmoa geldia zelako.

Transferentzia arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 30 izan dira, eta transferentzia guztiak bateraturik (arruntak eta kapitalarenak) ehuneko 46.

2009arekin alderatuta, ehuneko bat igo dira aitortutako eskubideak.

Hona kapituluz kapituluko banaketa:

Diru-sarreraren kapitulua	Aitorturiko eskubideak, 2010	Aitorturiko eskubideak, 2009	Aldea, ehunekotan 2010/2009
1 Zuzeneko zergak	634.913	629.935	% 1
2 Zeharkako zergak	80.342	38.223	% 110
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	416.381	389.550	% 7
4 Transferentzia arruntak	1.172.321	1.240.218	(% 5)
5 Ondare diru-sarrerak	395.358	409.690	(% 3)
Diru-sarrera arruntak	2.699.315	2.707.616	-
6 Inbertsio errealen besterentzea	-	233.280	(% 100)
7 Kapital-transferentziak	611.627	526.504	% 16
9. Finantza-pasiboak	564.000	450.000	% 25
Kapital diru-sarrerak	1.175.627	1.209.784	(% 3)
Diru-sarrerak guztira	3.874.942	3.917.400	(% 1)

2010ean sarrera arruntak ez dira aldatu 2009koekin alderatuta.

Udalak aplikatzen dituen tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak agintzen dituen tasa ertain-altuen artean daude, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

	2/95 FORU LEGEA	Udala, 2010
Lurraren kontribuzioa	0,10 - 0,50 bitartean	
Hiri-kontrib.		0,1422
Landalurraren kontrb.		0,5077
Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga	1 - 1,4 bitartean	1,4
EIOZ	2 - 5 bitartean	3,5

Tasa hauetan ez da aldaketarik izan 2009koekin alderatuta.

Nabarmentzekoa da Zuzeneko Zergen kapituluaren aitortutako eskubideen ehuneko 47 hirilurren kontribuzioari eta landalurren kontribuzioari dagozkiola.

Finantza-pasiboak diru-sarrera guztien ehuneko 41ean exekutatu dira, eta proportzio txikiagoan aurrekontuetan finkatutakoari dagokionez, haurrentzako eskola eraiki ez denez.

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, egiaztatu dugu egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, oro har. Alabaina, ondorengo puntu hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Beste balorazio-ponentzia bat egiten ez den bitartean, Udalak hirilurrei eta landalurrei aplikatzekoak zaizkien tasak bereizten jarraitzen du, eta ez da egokitu Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 139. artikuluan aurreikusitako lurralde-kontribuzioaren tasa bakarrera. Foru lege hori 2006tik dago indarrean.

- Tasa eta prezio publikoak ez dira bermatzen kostuei buruz nahitaezkoak diren kostu-azterlanean.

Aholkuok ematen ditugu:

- *Tasa eta prezio publikoen tarifak babestea kostuei buruz behar den azterlana eginez.*

- *Balorazio-ponentzia eguneratzea, lurraren kontribuzioaren ordainarazpena egiteko.*

VI.7. FINANTZA-ZAMA

Gastuen aurrekontuko 3. eta 9. kapituluetakobaturak 870.312 euro egiten du 2010ean. Kopuru horrek gastuen guztizkoren ehuneko 22 esan nahi du. Ehuneko 167 egin du gora 2009. urtearen aldean.

2010ean, haurrentzako eskola eraikitzeko 2009ko kredituari buruz esan dena kontuan harturik, Udalak ez du beste mailegurik hartu beharrik izan eta langileen ordainsarrietan izandako murrizketa amortizazio aurreratua egiteko aplikatuko du.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastuen izapidetzea eta kontabilizatzea egokia dela. Hala ere:

- Zorrek balantzean duen islak eta zorraren egoera-orriak zuzendu beharreko desberdintasun arinak dauzkate.

Aurreko zorraren osotasunean, 2002tik 2009ra arte eskatutako maileguak sartzen dira. Interes aldakorreko maileguak dira, euriborra gehi ehuneko zenbateko bat erreferentzia gisa dutenak. 2010eko abenduaren 31n, 3.440.250 eurokoa da zor bizia. Zor horien urtemugak ondoko taula honetan ageri da:

Urte bakoitzean amortizatzeko zorra	Mugaurrea	Portzentajea
282.144	2011	8,2
274.370	2012	8,0
217.842	2013	6,3
215.540	2014	6,3
220.449	2015	6,4
225.351	2016	6,6
230.644	2017	6,7
235.939	2018	6,9
241.370	2019	7,0
246.867	2020	7,2
1.049.735	2021 - 2031	30,4
Guztira	3.440.250	% 100

Taula honetan ikusten den bezala, zor horren ehuneko 69,60 2020 bitartean iraungitzen da; urte horretatik aurrera amortizazio-kuoten zenbatekoa gutxitu egiten da; nabarmentzekoa da 2026-2031 bitartean zor horren ehuneko 4,13 iraungitzen dela.

VI.8. HIRIGINTZA

Hirigintzaren kudeaketa Udaletxeak berak egiten du (arkitekto teknikoak), Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Tafallako Eskualdeko Bulegoaren laguntzarekin.

Indarrean dagoen hiri antolamendua 2002ko martxoaren 26an onartu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean 2002ko maiatzaren 22an argitaratu zen Udalaren Plan Orokorra da. 2011n Udalbatzak beste plan bat prestatzea erabaki zuen, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak indarrean darman denbora kontuan hartuta.

Data horretatik hona 21 aldaketa izan ditu planeanamendu horrek.

Udalak baditu Udalaren Lurzoru-ondarearen eta Hirigintza-Hitzarmenen arauzko erregistroak. 35/2002 Foru Legearen 56. artikulua arabera, Udalaren Plan Orokorra Lurraren Erabilerarako

Estrategia eta Ereduak eta Udalaren hirigintza-planak osatzen dute.

VI.9. GORABEHERAK ETA ZALANTZAK

Udalak planteatuta dauzkan gorabeherak eta zalantzak honakoei buruzkoak dira:

- 420/2009 Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, prozedura laburtukoa, 2009ko irailaren 10ean herritar batek eta aseguru-konpainia batek Faltzesko Udala eta enpresa esleipenduna auzitara eramanez. Errekurtso hori 2011ko urtarrileko 21eko epaiak erabaki du; epai horrek auzi-jartzailiek 10.918 euro ordaintzera kondenatu zituen Udala eta enpresa.


Txosten hau Jesús Muruzabal Lerga kontu-ikuskatzaile jaunak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2012ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA: UDALAREN ORGANIGRAMA, 2010EKO ABENDUAREN 31N

FALTZESKO UDALEKO ORGANIGRAMA (2010)



Vianako Udalarari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Comptos Ganberak Vianako Udalarari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukiri buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2012ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Vianako Udalarari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (16. or.).
- II. Erakundearen deskribapena eta aplikatzekoa den araudia (17. or.).
- III. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (19. or.).
- IV. Iritzia (20. or.).
 - IV.1. Kontu orokorra (20. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (20. or.).
 - IV.3. 2010eko abenduaren 31ko egoera ekonomikoa eta finantzarioa (20. or.).
 - IV.4. Ganbera honek 2006ko fiskalizazio-txostenean eman zituen aholkuak noraino bete diren (22. or.).
- V. Udalaren 2010eko kontu orokorraren laburpena (23. or.).
 - V.1. Aurrekontuaren betetze-maila (23. or.).
 - V.2. Udalaren aurrekontuaren emaitza (24. or.).
 - V.3. Udalaren diruzaintza-gerakinaren egoera (24. or.).
 - V.4. Udalaren egoera-balantzea (25. or.).
 - V.5. Udalaren Galeren eta Irabazien Kontua (26. or.).
- VI. Udalarari buruzko iruzkin, ondorio eta aholkuak (27. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (27. or.).

VI.2. Aurrekontuen likidazioaren 2007tik 2010era bitarteko bilakaera (27. or.).

VI.3. Langile-gastuak (29. or.).

VI.4. Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak (30. or.).

VI.5. Transferentzien ondoriozko gastuak (31. or.).

VI.6. Inbertsioak (32. or.).

VI.7. Finantza-zama (34. or.).

VI.8. Tributu bidezko diru-sarrerak (34. or.).

VI.9. Bestelako diru-sarrerak (36. or.).

VI.10. Hirigintza (36. or.).

VI.11. Gorabeherak eta zalantzak (36. or.).

VII. "Nuestra Señora de Gracia" fundazioa (36. or.).

Eranskina: Udalaren organigrama 2010eko abenduaren 31n (38. or.).

Alkateak behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioak (39. or.).

Behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioei Comptos Ganberak emandako erantzuna (40. or.).

I. SARRERA

Vianako Udalbatzak, 2011ko martxoaren 24ko Osoko Bilkuran, Comptos Ganberari 2007tik 2010era bitarteko ekitaldiei buruzko fiskalizazio-txosten bat eskatzea erabaki zuen.

Udalaren erabaki horretan hau adierazten da:

"Comptos Ganberari, legealdiaren bukaera dela-eta, Erakunde horrek egin zuen azkeneko kontu-ikuskaritzaz geroztik udal honek egin duen kudeaketaren kontu-ikuskaritza bat egin dezala eskatzea proposatzen du Lehendakaritzak"

Eskaera hori betetzeko, urtearen azkeneko hiru hilabeteetan, aipatutako lan hori Ganbera honen 2011ko Ikuskaritza-Programaren barruan sartu zen. Udalaren eskaera 2007-2010 bitarteko ekitaldi guztietarako egin bada ere, 2010eko ekitaldia ikuskaritza mugatuko da gure lana; hala eta guztiz ere, Udalaren finantza-egoerak 2007az geroztik izan duen bilakaera bereziki aztertzen da. 2008ko maiatzean, Ganbera honek Udal horren 2006ko

ekitaldiari dagozkion kontuei buruzko txosten bat eman zuen.

Azterketa-lana 2011ko azarotik 2012ko urtarrila bitarteko hilabeteetan egin zen.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera hau ere barne hartuta. Bigarren atalean udal honen ezau-garri nagusiak eta bere araubide juridikoa azal-tzen dira. Hirugarren atalean txosten honen helbu-ruak eta norainokoa adierazten ditugu; laugarrenean Udalaren kontu orokorrari buruz dugun iritzia eta bosgarrenean iritzi horren labur-pen bat. Seigarren atalean Udalaren antolamen-dua eta barne kontrola hobetzeko ongien iruditzen zaizkigun iruzkinak, ondorioak eta aholkuak sar-tzen ditugu eta zazpigarrenean –azkenean– Nuestra Señora de Gracia fundazioari buruzko informazioa ematen da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Vianako Udaleko eta Nuestra Señora de Gracia fundazioko langile-ei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. ERAKUNDEAREN DESKRIBAPENA ETA APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

Viana Lizarrako Merindadean dagoen udal soil bat da; 78,6 km²-ko azalera du eta 4.018 biztanle zituen 2010eko abenduaren 31n.

Udal honek ez du eratu inolako sozietate publi-ko edo erakunde autonomorik; hala ere ondoren aipatzen diren erakundeetako partaide da; era-kundearen izenarekin batera partaidetza horrek Udalari eragin dion gastua aipatzen da.

- Jurramendiko Mankomunitatea; honen bidez ematen dira uraren ziklo integralaren zerbitzuak eta hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta trata-menduko eta hirigintzako zerbitzuak (Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoa –O.R.V.E.– eta Hirigintza Zerbitzuak): 72.713 euro.

- Goi Erriberako kirol-mankomunitatea, kirol-jar-duerak kudeatzeko: 8.256 euro.

- Estellerriko Turismo Partzuergoa: 9.976 euro.

- “Nuestra Señora de Gracia” fundazioa; funda-zio honek bereizirik aurkezten ditu urteko kontuak, eta txosten honetako zazpigarren atalean daude jasota: 12.110 euro.

Udal honen eta 2010eko abenduaren 31ko kopuru ekonomiko aipagarrienak hauek dira:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Plantillako langileak	Udalan lanean ari diren langileak
Udala	5.860.491	5.903.476	28	41

Laburbilduz, Udalak ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Udal Zerbitzuak	Udala Fundazioa	Mankomunitatea/Partzuergoa	Zerbitzu-kontratuak	Errentamendua
Administrazio-zerbitzu orokorrak	X			
Musika-eskola			X	
Zahar-etxea	X			
Etzez etxeko laguntza-zerbitzua	X			
Hilerria	X			
Hirigintza	X	X	X	
Uraren presio handiko eta txikiko hornidura		X		
Hiri-hondakinak		X		
Bide-garbigeta	X			
0-3 urtekoen ikastetxea			X	
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X			
Udal kiroldegia	X			
Igerilekuak				X
Kirol-jardueren kudeaketa	X			
Ikastetxeen mantentze-lanak	X			
Liburutegia	X			
Udalaren futbol-zelaia				X
Wifi publikoa			X	
Gizarte Etxea	X			
Kontsumitzaileen informaziorako zerbitzuak			X	
Informazio turistikoko gunea	X			
Hizkuntz eskola			X	
Parkeak eta lorategiak			X	
Industrialdea	X			
Landazaintza	X			
Kultur etxea, Ziberteka	X			

Udalari dagokionez 2010eko ekitaldian aplikatzekoa den araubide juridikoa honako hauek osatzen dute, funtsean:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langile-riaren Estatutuaren Testu Bategina.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.
- Urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege Dekretua, Enplegurako eta Tokiko Iraungarritasunerako Estatuko Funtsa sortu zuena.
- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira araubide juridikoa ezartzen dutenak.
- Udalaren 2010eko aurrekontuaren exekuzio-oinarriak eta gainerako barne arauak.

III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Vianako Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txosten honen helburua honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea da:

a. Ea Vianako Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen, alderdi esanguratsu guztietan, ondareaz, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioaz eta 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoeraz eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzez, aplikatzekoa den finantzei buruzko informazio publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, hartan jasotzen diren kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

b. Udalak 2010ean izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-mailaz.

c. Udalak 2010eko abenduaren 31n zuen finantza-egoeraz eta egoera horrek 2007tik 2010era izan duen bilakaeraz.

d. Ganbera honek 2006ko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino ezarri diren.

Txostenarekin batera, Udalak ezarritako barne kontroleko sistema, administrazio-sistema eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzen jo ditugun aholkuak ere gehitu dizkiogu.

Comptos Ganberak eginiko fiskalizazioa Vianako Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorrera zabaldu da; horretan egoera-orri hauek sartzen dira, besteren artean:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta diruzaintzaren gerakina.
- Egoera-balantzea eta Galeren eta Irabazien Kontua.
- Kontu orokorraren eranskinak: zorraren egoera eta kontu-hartzailearen txostena, besteak beste.

Lan hau Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaprobea edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz osatu da; prozedura horien artean laginen teknika edo kontusail edo eragiketa jakin hautatuak berrikusteko teknika erabili dira.

Finantza-egoeraren 2007tik 2010era bitarteko bilakaera aztertzeke, Ganbera honek gisa horretako lanetan erabiltzen dituen magnitude, ratio eta adierazle berberak aplikatu dira.

IV. IRITZIA

Egin den lanaren irismena kontuan hartuta, 2010eko ekitaldiari dagokion Vianako Udalaren kontu orokorra aztertu dugu; kontu hori prestatzea eta kontuaren edukia Udalaren erantzukizuna dira.

Gure azterketa-lanetik ondoko iritzia atera dugu ondorioz:

IV.1. KONTU OROKORRA

Vianako Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorrak zehazki jasotzen ditu, alderdirik behin-etan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, hura egoki interpretatzeko eta ulertzeko behar den informazio guztia biltzen du, informazio finantzario publikoari dagokionez aplikatzekoa den arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren irismenaren neurrian, esan daiteke Udalaren jarduera ekonomiko eta finantza-

ria, oro har, legezkotasun-printzipioari jarraituz egiten dela.

IV.3. 2010eko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Vianako Udalaren hasierako aurreikuspenak 5,6 milioi eurokoak ziren; aurreikuspen horiek, ordea, 1,4 milioi euroko emendio bat izan zuten, aurrekontuen aldaketan bidez (ehuneko 25eko emendioa); emendio hori inbertsiotarako gastuen eta gastu horien finantzaketaren emendioaz justifikatzen da batez ere.

Aitortutako betebeharrak 5,86 milioi euro dira guztira; betebehar horien betetze-maila ehuneko 83koa izan da eta ordainketa-portzentajea ehuneko 87koa; diru-sarrerei dagokienez, aitortutako eskubideak 5,9 milioi euro dira, betetze-maila ehuneko 84eko dute eta kobrantza-portzentajea ehuneko 83koa.

Koadro honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren gastuko 100 eurotik bakoitza:

Gastuen izaera	Zenbatekoa	Finantza-bidea	Zenbatekoa
Langileak	23	Tributu bidezko diru-sarrerak	29
Gastu arruntak	30	Bestelako diru-sarrerak	10
Inbertsioak	40	Transferentziak	55
Transferentziak	4	Ondare bidezko diru-sarrerak	4
Finantza-zama	3	Inbertsioen besterentzea	2
Guztira	100	Guztira	100

Aurrezte gordina 719.763 eurokoa da; 537.040 euroko aurrezki garbia ateratzen da aurrezki gordinari finantza-zama -182.723 euro- kenduz gero. Horrek esan nahi du erakunde honek baduela bere burua finantzatzeko aukera, beste inbertsio batzuetarako erabiltzeko.

2010eko abenduaren 31n, zor bizia 1,83 milioi eurokoa da: zor bizi hori erakunde honen diru-sarrera arrunt guztien ehuneko 45 da; portzentaje hori gaur egun zor berriak egiteko dagoen legezko muga, ehuneko 75, baino beherago dago.

Zorpetze-maila ehuneko 4,5koa da; maila horrek oraindik ere zorrak hartzeko ehuneko 13,23ko gaitasuna duela esan nahi du.

Ekitaldi honetako aurrekontu-emaitza doituia 65.265 eurokoa da; beraz, aurreko ekitaldiko emaitzaren aldean 192.354 euroko emendioa izan dela esan nahi du horrek, ekitaldi hartako emaitza negatiboa izan baitzen, 127.089 euroz.

Beste alde batetik, diruzaintza-gerakina 614.045 eurokoa da guztira, aurreko urteko 892.094 euroko gerakinaren aldean. Joera horri jarraituz, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 271.683 eurokoa da; aurreko ekitaldian, berriz, 494.879 eurokoa izan zen.

Ondoko taulan 2007tik 2010era bitarteko aldi- an, ekitaldi horien likidazioetan lortutako adierazle nagusiek izan zuten bilakaera erakusten da.

Adierazlea	2007	2008	2009	2010	2010-2007 aldea
Diru-sarrerak, guztira	8.861.406	7.505.075	7.276.429	5.903.476	-33
Gastuak, guztira	12.798.286	11.028.782	8.120.223	5.860.491	-54
Diru-sarrera arruntak	5.830.914	4.599.618	3.821.961	4.058.123	-30
Gastu arruntak	3.303.041	3.515.958	3.488.515	3.367.999	2
Tributu bidezko diru-sarrerak	3.899.050	2.695.966	2.118.775	2.297.288	-41
Funtzionamendu-gastuak	3.298.439	3.515.468	3.482.538	3.338.360	1
Inbertsio garbia	8.755.945	6.419.433	4.128.539	2.224.278	-75
Langile-indizea, ehunekotan	9,54	12,53	17,77	23,28	144
Inbertsio-indizea, ehunekotan	72,85	67,10	55,50	39,71	-45
Transferentzia arruntekiko mendekotasuna, ehunekotan	23,22	34,34	38,26	37,30	61
Aurrezki gordina	2.532.475	1.084.150	339.422	719.763	-72
Finantza-zama	162.474	101.374	106.938	182.723	12
Aurrezki garbia	2.370.001	982.776	232.484	537.040	-77
Gastu orokorretako diruzaintzako gerakina	4.693.427	1.761.469	494.879	271.683	-94
Diruzaintzako gerakina, finantza-gastuak sartuta	1.035.640	231.471	397.215	342.361	-67
Diruzaintzako gerakina, baliabide atxikiekin	510.085	--	--	--	--
Itundutako maileguak	--	--	800.000	--	--
Zor bizia	1.382.500	1.281.616	1.980.655	1.827.571	32
Zor bizia/diru-sarrera arruntak ehunekotan	24	28	52	45	88
Zorpetze-maila, ehunekotan	2,79	2,20	2,80	4,50	61
Zorpetze-ahalmena, ehunekotan	40,65	21,37	6,08	13,23	-67
Zorpetze-muga ehunekotan	43,43	23,57	8,88	17,74	-59

Ondoren aurreko informazio horretako daturik garrantzitsuenak aztertzen dira, aztertzen den aldiari begiratuz:

- Diru-sarrerak, guztira, ehuneko 33 gutxitu dira, eta guztizko gastuak ehuneko 54.

- 2007, 2008 eta 2009ko aurrekontuetako defizita diruzaintzako gerakinaren bidez berdindu da; gerakin horrek kopuru hauek baitzituen 2006an:

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintza-gerakina	Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina
1.689.411 €	714.786 €	7.262.854 €

- Jatorriari begiratuz gero, diru-sarrera arruntak ehuneko 30 urritu direla ikusten da; gastu arruntak, berriz, ehuneko bi handitu dira.

- Tributu bidezko diru-sarrerak ehuneko 41 urritu dira; funtzionamendu-gastuak, berriz, ehuneko bat handitu dira.

- Azpimarratzekoa da inbertsio garbiko gastuetan izan den murrizketa handia; horren ondorioz, langile-gastuek garrantzi erlatibo handiagoa hartu dute gastuen guztizko zenbatekoaren barruan, 2010ean ehuneko 23 izatera iritsi baita, 2007an ehuneko 10 zena.

- Zorpetzeko ahalmena beheratu egin da, eta ehuneko 13an kokatzen da; hala ere, ekonomiaren ikuspegitik, Udalak badu finantzaketa erakartzeko aukera oraindik ere.

Laburtuz, bada, Udal hau, gastuei eta inbertsioei bultzada handia eman zaien aldi baten ondoren, aurrekontuak gaur egungo ekonomiaren

krisi egoerara egokitzen ari da. Murrizketak egin dira aurrekontuetan, inbertsioen eremuan batez ere, eta, beste alde batetik, funtzionamendu-gastuei eta gastu arruntei hazi gabe eustea lortu da. Horregatik guztiagatik, beraz, Udal honek gastuei eusteko bide horretatik jarraitu behar duela uste dugu, gaur egungo egoera ekonomiko eta finantzarioaren eskakizunei erantzuteko baliabide arruntak sortzeko gaitasuna hobetzen ahalegin-
duz, aldi berean.

IV.4. GANBERA HONEK 2006ko FISKALIZAZIO-TXOSTENEAN EMAN ZITUEN AHOLKUAK NORAINO BETE DIREN.

Oro har, esan daiteke Ganbera honek 2006ko fiskalizazio-txostenean eman zituen ia aholku guztiak bete direla, salbuespen honekin, hala ere:

- Ez da eguneratu hirigintza-planeamendua 35/2002 Foru Legearen zehaztapenetara egokituz.

V. UDALAREN 2010eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, Udalaren 2010eko kontu orokorrak jasotzen dituen finantzen egoera-orrien laburpen bat ematen dugu.

V.1 AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Betetakoaren %	Ordainketak	Ordainketen %	Ordaintzeke dagoena
1. Langile gastuak	1.492.700,00	1.519.288,25	1.364.460,79	89,81	1.362.523,54	99,86	1.937,26
2. Ondasunak eta zerbitzuak erostea	1.923.740,00	1.914.278,00	1.748.872,61	91,36	1.512.388,18	86,48	236.484,43
3. Gastu finantzarioak	105.900,00	35.900,00	29.638,85	82,56	29.638,85	100,00	0,00
4. Transferentzia arruntak	244.400,00	256.200,00	225.026,26	87,83	191.335,22	85,03	33.691,04
6. Inbertsio errealak	1.702.770,00	3.126.187,64	2.327.298,91	74,45	1.819.657,55	78,19	507.641,36
7. Kapital-transferentziak	12.200,00	12.200,00	12.109,72	99,26	12.109,72	100,00	0,00
9. Finantza-pasiboan aldaketa	141.100,00	153.460,00	153.083,93	99,75	153.083,93	100,00	0,00
Gastuak, guztira	5.622.810,00	7.017.513,89	5.860.491,07	83,51	5.080.736,99	86,69	779.754,08

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubide garbiak	Betetakoaren %	Kobrantzak	Kobrantzak (%)	Kobratzeko
1. Zuzeneko zergak	1.407.320,00	1.407.320,00	1.512.850,56	107,50	1.398.480,75	92,44	114.369,81
2. Zeharkako zergak	147.960,00	147.960,00	197.089,89	133,20	129.544,38	65,73	67.545,51
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	495.160,00	495.160,00	587.347,88	126,67	549.798,89	93,61	37.548,99
4. Transferentzia arruntak	1.626.550,00	1.659.798,25	1.513.509,32	91,19	1.390.512,44	91,87	122.996,88
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	242.370,00	242.370,00	247.325,40	102,04	198.554,54	80,28	48.770,86
6. Inbertsio errealak besterentzea	600.830,00	600.830,00	103.020,52	15,13	82.550,05	80,13	20.470,47
7. Kapital-transferentziak	1.102.620,00	1.574.648,42	1.742.332,07	110,65	1.122.027,6	64,40	620.304,47
8. Finantza-aktiboak	0,00	889.427,22	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9. Finantza-pasiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Diru-sarrerak guztira	5.622.810,00	7.017.513,89	5.903.475,64	83,53	4.871.468,65	82,52	1.032.006,99

V.2. UDALAREN AURREKONTUAREN EMAITZA

Kontzeptua	2009ko ekitaldia	2010eko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	7.276.429,04	5.903.475,64
Aitortutako betebeharrak garbiak	8.120.227,81	5.860.491,07
Aurrekontuaren emaitza	-843.798,77	42.984,57
Doitzeak		
Finantzaketaren desbideraketa positiboa	376.160,56	573.155,27
Finantzaketaren desbideraketa negatiboa	313.723,93	522.934,89
Diruzaintzako gerakinaz finantzaturiko gastuak	779.146,01	72.500,58
Aurrekontu-emaitza doituak	-127.089,39	65.264,77

V.3. UDALAREN DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA

Kontzeptua	2009ko ekitaldia	2010eko ekitaldia	Aldaketa, ehunekotan
+ KOBRAZTEKO DAUDEN ESKUBIDEAK	1.682.012,62	1.175.958,70	-30,09
+ Diru-sarreraren aurrek: aurtengo ekitaldia	1.392.922,30	1.032.006,93	-25,91
+ Diru-sarreraren aurrek: Itxitako ekitaldiak	812.491,95	625.561,63	-23,01
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	145.571,25	115.522,63	-20,64
+ Ordainketen itzulketak	8.026,38	0,00	-100,00
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	4.420,94	7.222,89	63,38
- Nekez kobratzeko eskubideak	672.578,32	589.909,60	-12,29
- ORDAINTZEKO DAUDEN BETEBEHARRAK	1.435.825,66	972.586,01	-32,26
+ Gastu-aurrek. aurtengo ekitaldia	1.217.270,26	779.754,08	-35,94
+ Gastu-aurrek. Itxitako ekitaldiak	17.039,84	11.976,09	29,72
+ Diru-sarreraren aurrek.	38.828,63	7.569,69	-80,50
+ Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak	0,00	0,00	0,00
- Aplikatzeko dauden gastuak	0,00	0,00	0,00
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	162.686,93	173.286,15	6,52
+ DIRUZAINZTAKO FUNTS LIKIDOAK	451.447,66	392.045,35	-13,16
+ Finantziario-desbideraketa metatu negatiboak	194.459,41	18.626,52	-90,42
= DIRUZAINZTAKO GERAKINA, GUZTIRA	892.094,03	614.044,56	-31,17
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuen arabera	397.214,91	342.361,19	-13,81
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0,00	0,00	0,00
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	494.879,12	271.683,37	-45,10

V.4. UDALAREN EGOERA-BALANTZEA.

AKTIBOA

Deskribapena	2010	2009
A IBILGETUA	48.956.128,22	44.953.505,79
1 Ibilgetu materiala	47.105.624,28	43.139.966,09
2 Ibilgetu ez-materiala	35.153,60	0,00
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0,00	0,00
4 Herri-ondasunak	1.814.869,83	1.813.059,19
5 Ibilgetu finantzarioa	480,51	480,51
B ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK	0,00	0,00
6 Deuseztatu beharreko gastuak	0,00	0,00
C ZIRKULATZAILEA	2.165.136,54	2.810.459,54
7 Izakinak	0,00	0,00
8 Zordunak	1.773.091,19	2.359.011,88
9 Kontu finantzarioak	392.045,35	451.447,66
10 Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak	0,00	0,00
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0,00	0,00
AKTIBOA, GUZTIRA	51.121.264,76	47.763.965,33

PASIBOA

Deskribapena	2010	2009
A FUNTS PROPIOAK	48.313.884,89	44.343.063,83
1 Ondarea eta erreserbak	37.648.778,84	33.210.714,14
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	649.286,89	2.671.723,70
3 Kapitaleko diru-laguntzak	10.015.819,16	8.460.625,99
B ARRISKUETARAKO ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK	0,00	0,00
4 Hornidurak	0,00	0,00
C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	1.827.570,97	1.980.654,90
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailuak	1.827.570,97	1.980.654,90
D EPE LABURRERAKO HARTZEKODUNAK	979.808,90	1.440.246,60
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	972.586,01	1.435.825,66
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	7.222,89	4.420,94
PASIBOAREN GUZTIZKOA	51.121.264,76	47.763.965,33

V.5. UDALAREN GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA			HARTZEKO		
Deskribapena	Zenbatekoa 2010	Zenbatekoa 2009	Deskribapena	Zenbatekoa 2010	ZENBATEKOA, 2009
3 Hasierako izakinak	0,00	0,00	3 Bukaerako izakinak	0,00	0,00
39 Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko hornikuntza (aurreko ekitaldiko hornikuntza)	0,00	0,00	39 Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko hornikuntza (aurreko ekitaldiko hornikuntza)	0,00	0,00
60 Erosketak	0,00	0,00	70 Salmentak	310.862,75	261.710,71
61 Langile gastuak	1.373.721,90	1.457.097,45	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	415.241,44	435.577,76
62 Gastu finantzarioak	29.638,85	5.976,30	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	1.380.370,65	1.224.020,37
63 Zergak	46,28	292,06	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	238.876,86	234.698,24
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	1.739.565,22	1.773.803,23	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0,00	0,00
65 Gizarte-prestazioak	0,00	0,00	76 Transferentzia arruntak	1.513.509,32	1.462.264,09
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0,00	0,00	77 Kapitalaren gaineko zergak	90.692,94	143.822,53
67 Transferentzia arruntak	225.026,26	251.345,75	78 Bestelako diru-sarrerak	295.707,99	251.370,37
68 Kapital-transferentziak	12.109,72	24.109,72	79 Beren helbururako aplikaturiko hornikuntzak	0,00	0,00
69 Amortizazioetarako eta homiduretarako hornidura, ekitaldikoa	0,00	0,00			
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	865.153,72	500.839,56	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0,00	0,00
Guztira	4.245.261,95	4.013.464,07	Guztira	4.245.261,95	4.013.464,07

Ekitaldiko emaitzak

ZORRA			HARTZEKO		
Deskribapena	Zenbatekoa 2010	Zenbatekoa 2009	Deskribapena	Zenbatekoa 2010	Zenbatekoa 2009
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0,00	0,00	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	865.153,72	500.839,56
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	0,00	0,00	82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	16.163,04	107.000,00
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0,00	0,00	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0,00	0,00
84 Ixhitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	232.029,87	62.900,73	84 Ixhitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0,00	0,00
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	649.286,89	544.938,83	89 Etekin garbia, guztira (saldo zorduna)	0,00	0,00
Guztira	881.316,76	607.839,56	Guztira	881.316,76	607.839,56

VI. UDALARI BURUZKO IRUZKIN, ONDORIO ETA AHOLKUAK

Ondoren, Comptos Ganbera honek Udalaren funtzionamenduaz atera dituen ondorio nagusiak eta, haren aburuz, Udalak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistematik hobetzeko, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako jarraitu beharko lituzkeen aholku nagusiak aipatzen dira.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2010eko ekitaldiko aurrekontuari 2010eko martxoaren 1ean eman zitzaion behin betiko onespena.

Gizarte-etxea, lagapenez utzia dagoena, atxikitako ondare bezala sailkatuta dago, 351.306 euroko kopuru batez. Horrez gainera, futbol-zelaiak, 103.249 euroko balio batez, dagoeneko Udalaren

eskuetara itzulita daudenak, oraindik ere lagapenez utzitako ondare gisa erregistratuta daudela ikusi da, eta inbentarioan ez daudela sartuta. Udalak zuzendua du hori, dagoeneko.

Udalaren kontu orokorrak ez darama txostenik.

Aholku hauek ematen ditugu:

- *Udalaren aurrekontuak indarrean dagoen legeriak agintzen dituen epeetan egin eta onartzea.*

- *Kontu Orokorrarekin batera kontu hori ulerzeko behar den informazio guztia jasotzen duen txostena bat atxikitzea.*


VI.2. AURREKONTUEN LIKIDAZIOAREN 2007tik 2010era BITARTEKO BILAKAERA

Ondoko koadro honetan dago jasota, kapituluz kapitulu, Vianako Udalaren aurrekontuen likidazioen bilakaera.

Kapitulua	Gastuak	2007	2008	2009	2010
1	Langile-gastuak	1.220.379,96	1.381.568,37	1.442.920,03	1.364.460,79
2	Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	1.823.080,92	1.911.532,64	1.788.272,71	1.748.872,61
3	Gastu finantzarioak	4.601,83	490,01	5.976,30	29.638,85
4	Transferentzia arruntak	254.978,22	222.367,15	251.345,75	225.026,26
6	Inbertsio errealak	9.323.550,52	7.399.830,06	4.506.641,67	2.327.298,91
7	Kapital-transferentziak	13.821,88	12.109,72	24.109,72	12.109,72
9	Finantza-pasiboak	157.872,63	100.883,95	100.961,63	153.083,93
	Guztira	12.798.285,96	11.028.781,90	8.120.227,81	5.860.491,07

Kapitulua	Diru-sarrerak	2007	2008	2009	2010
1	Zuzeneko zergak	1.381.044,30	1.626.720,94	1.488.876,31	1.512.850,56
2	Zeharkako zergak	1.897.841,03	430.802,37	113.664,83	197.089,89
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	620.045,64	638.442,34	516.264,09	587.347,88
4	Transferentzia arruntak	1.353.821,51	1.579.715,99	1.462.264,09	1.513.509,32
5	Ondare-sarrerak eta herri ondasunen aprobetxamenduak	578.042,02	323.936,74	240.922,17	247.325,40
6	Inbertsio errealak besterentzea	567.605,56	980.396,67	378.102,89	103.020,52
7	Kapital-transferentziak	2.463.005,75	1.925.059,98	2.276.365,23	1.742.332,07
9	Finantza-pasiboak	-	-	800.000,00	-
	Guztira	8.861.405,81	7.505.075,03	7.276.459,61	5.903.475,64

Ondoren lehenago azaldu dugun bilakaera horren adierazpen grafiko bat eskaintzen da:



Aurreko datu horiek aztertuta, alderdi hauek azpimarra daitezke:

- Joera nabarmena ikusten da gastuak urrituz joateko, eta diru-sarreratara egokitzeko. Hala, 2007ko datuekin alderatuta, 2010eko diru-sarrerak

eta gastuak ehuneko 33an urritu dira –diru-sarrerak– eta ehuneko 55 –gastuak–.

- Gastuei dagozkien adierazle nagusiek, 2007ko egoera oinarritzat hartuz, hemen adierazten den bilakaera hau izan dute.

Gastuen adierazleak	2007	2008	2009	2010
Gastu arruntak	100	106	106	102
Funtzionamendu-gastuak	100	107	106	101
Inbertsio errealetako gastuak	100	79	48	25
Finantza-zama	100	62	66	112

Ikusten denez, gastu arruntek eta funtzionamenduzko gastuek ez dute emendio nabarmenik, eta oso nabarmena da inbertsio errealetan izan den urritzea. Finantza-zamari dagokionez, aztertu den aldi osoan zehar handituz doa, nahiz eta

2008an eta 2009an beherakada bat izan zuen, 2009an mailegu berri bat hartu zelako eta zorraren zati bat epea baino lehen amortizatu zelako.

- Diru-sarrerei dagokienez, emaitza hauek ageri dira, erreferentziazat 2007. urtea harturik:

Gastuen adierazleak	2007	2008	2009	2010
Diru-sarrera arruntak	100	79	66	70
Kapital diru-sarrerak	100	96	114	61

Diru-sarrerren bilakaerak ere tamaina bertsuko beherako joera erakusten du.

• Aurrezki gordinaren eta garbiaren bilakaera aztertuz gero, informazio hau ateratzen da:

Aurrezkiak	2007	2008	2009	2010
Aurrezki gordinak	2.532.475	1.084.150	339.422	719.763
Indizea	100	43	13	28
Aurrezki garbia	2.370.000	982.776	232.484	537.041
Indizea	100	36	10	23

Bi adierazleok beherako joera erakusten dute, argi eta garbi, 2009az gero oneratzeko joeratzat bat ageri bada ere.

aitortutako gastu guztien ehuneko 23. Ehuneko 90 bete dira, eta 2009ko ekitaldiko datuekin alderatzen badira, ehuneko bost urritu dira, partez 12/2010 Foru Legea aplikatzeak eraginda.


VI.3. LANGILE-GASTUAK

Langileen kapituluak 1,4 euro egiten dute aitortutako betebeharrak; alegia, 2010eko ekitaldian

Hona kontuak banakatuta, 2009koekin alderatuta:

Aitortutako betebeharrak	2010	2009	Aldaketa, ehunekotan
Hautatutako karguak	58.490,12	61.275,01	95
Funtzionarioak	537.681,82	568.493,71	95
Langile kontratadunak	386.190,62	392.260,78	98
Gizarte-zamak	382.098,24	420.890,53	91
1. kapituluak guztira	1.364.460,80	1.442.920,03	95

Hurrengo irudian erakusten dugu langile-gastuek 2007tik 2010era izan duten bilakaera.



Ikusten den bezala, gastu hauen gorakada eten egiten da 2010ean, udaleko langileei eta zinegotziei 12/2010 Foru Legean aurreikusten den ordainketen urritzea aplikatu zaielako eta data jakin batzuetan egiten den aldi baterako langileen kontratazioa urritu delako. Udalak beherapen horretarako aurreikusitako zenbatekoa 12.360

eurokoa izan da, eta zorra epea baino lehen amortizatzeko erabili da.

Udalak 2010erako duen plantilla organikoa 2010eko martxoaren 1ean onartu zen; 28 lanpostuz osatzen da; horietatik, zortzi hutsik daude. 2010eko abenduaren 31n 41 pertsona ari ziren lanean Udalean, ondoko koadro honek erakusten duen bezala banatuta:

Langile-mota	Lanpostuak, guztira
Funtzionarioak	15
Administrazio-kontratupekoak	2
Langile finkoak	2
Aldi baterako lan-kontratupekoak	22

Lan-kontratupeko langileen multzoan ordezkapenengatik, lana pilotzeagatik, enplegu sozialagatik, Gizarte Gaietan eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiak krisiaren kontra ezarritako neurriak aplikatzeagatik –Oinarrizko gizarte-zerbitzuan langile gehiago kontratatzeak aukera ematen baitute– egindako kontratazioak eta gisakoak sartzen dira.

Gastu horien lagin bat aztertuta, ordaindu diren ordainsariak, oro har, betetako lanposturako erabakitakoak direla, egindako atxikipean zuzenak direla, eta langileria-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, salbuespen hauekin:

Lan-eskatzaileen zerrendan agertzen diren pertsonen lau hilabeterako aldi baterako egindako lau kontratutan, eta hiru hilabeterako egindako hiru kontratutan ez da agertzen zer sistema erabili den pertsona horiek aukeratzeko. Gai honi dagokionez, kontu-ikuskatzailearen bi txosten daude gertaera hori azpimarratzen dutenak.

Administrazio-kontratuak dutenek dagokien maila eta familiarik dagokion laguntza jasotzen dute. Administrazio-kontratuak arautzen dituen 68/2009 Foru Dekretuak agintzen duenez, era

horretako kontratua duten langileek ezingo dute horrelako ordainsaririk jaso, eta bada Toki Administrazioaren Departamentuaren azkenaldiko jakinarazpen bat, 2012ko otsailekoa, gai horixe berriro gogoratzen duena, gai hori dagokionez iritzi eta interpretazio desberdinak daudela ikusirik.

Aholku hauek ematen ditugu:


- *Udalaren plantilla organikoa indarrean dagoen araudiak agintzen dituen epeen barruan onartzea.*

- *Langileak aukeratzeko indarrean dagoen araudiak agintzen dituen aukeratzeko sistemak aplikatzea.*

VI.4. ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuen erosketek 1,7 milioi euro egin dute 2010ean; erosketen horien ehuneko 91 gauzatu da. Kapitulu honetan aitortutako betebeharrak gastuen aurrekontuaren ehuneko 30 osatzen dute, eta, 2009ekoekin alderatuta, ehuneko bi urritu dira.

Ondoko grafikoan erakusten da kapitulu honetako gastuan 2007tik 2010era izan den bilakaera:



Ikusten denez, aztertu den aldi honetan gastuak urritzea lortu du Udalak.

Gastuen lagin bat ikuskatu da; gastu horiek guztiak dagozkien fakturez justifikatuta daude, eta behar bezala kontabilizatu dira, Goi Erriberako Mankomunitateari kirol-jarduerak egiteko emandako diru-laguntza bat salbu, kapitulu honetan oker

kontabilizatuta agertzen baita, 8.256 euroko kopuru batez. Udalak zuzendu du dagoeneko hutsegite hori.

Horrez gainera, ekitaldi honetan esleitutako ondoren agertzen den kontratu-lagina ere ikuskatu da (zenbatekoak BEZ sartu gabe agertzen dira):

Espedientea	Mota	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenen kopurua	Esleipenaren zenbatekoa
Jaietarako piroteknia-materiala	Hornidura	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	21.552	5	20.000
1. zikloko ikastetxeko Haur Hezkuntzako Zerbitzua	Laguntzarako kontratua	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	92.577	1	82.577
Berdeguneak mantentzea	Laguntzarako kontratua	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	109.483	4	88.900
Ikastetxe publikoaren garbiketa-lanak	Laguntzarako kontratua	Negoziatua publizitatearekin	32.672	3	29.734


Aztertutako lanetik ondorioztatzen da ezen, oro har, aplikatzekoak diren kontratuei buruzko legeen arabera izapidetu direla espedienteak.

VI.5. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak 237.136 eurokoak izan ziren 2010ean, eta

ehuneko 88ko betetze-maila izan zuten. Aitortutako betebeharrak guztien ehuneko lau osatzen dute, eta ehuneko 14 urritu dira 2009koen aldean.

Ondoko koadroan adierazten da 2007-2010 arteko bilakaera; nabarmentzekoa da 2010an 2009koarekin alderatuta izan da urritzea, elkarteei ematen zaizkien laguntzetan izan den beherakadagatik batez ere, kapitulu horretan pilatzen baita aitortutako gastuen ia ehuneko 95.



Transferentzia arruntak elkarreei egiten zaizkie batez ere, eta kapital-transferentziak zaharren egoitza kudeatzen duen Nuestra Señora de Gracia fundazioari soil-soilik (12.110 euro).

Egin den azterketatik ateratzen den ondorioa da gastu hauen tramitazioa eta kontabilizazioa egokiak direla, oro har, alde zaharrearantz zaharberritze-lan batzuk egiteko pertsona partikularrei emandako 19.145 euroko diru-laguntza bat salbu, transferentzia arrunteko gastuen 4. kapituluan sartu baita. Udalak zuzendu du dagoeneko hutsegite hori.


VI.6. INBERTSIOAK

Ekitaldi honetan egindako inbertsioak 2,3 milioi eurokoak izan dira, eta ehuneko 75 betetze-maila izan dute. Kapitulu honek ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 40 egiten du, eta ehuneko 48 egin du behera 2009. urtearekin alderatuta.

Honako hauek izan dira ekitaldiko aurrekontuan gastu-bolumen handiena izan duten inbertsioak:

Deskribapena	Aitortutako betebeharrak
Zezenetarako balkoia	721.777
Hurtzaindegi berria	246.903
San Martin baseliza	219.408
Rokodromoa estaltzea	154.169
Zezenetarako Balkoiko Oinarrizko GZ bulegoak	116.362
Bake-auzitegia egokitzea	107.104
Zehaztutako obrak, guztira	1.565.723

Ondoren, era honetako gastuek 2007-2010 urteetan izan duten bilakaera erakusten dugu:



Ikusten denez, aurreko ekitaldietan ahalegin handia egin izan du Udalak; ahalegin hori urrituz joan da aztertzen dugun aldi honetan zehar, eta gastuen kapitulu hauxe da, hain zuzen, aurrekontu osoan gehien urritu dena.

Kapitulu honetako gastuen lagin bat aztertu da; gastu guztiak, dagokien fakturen bidez justifikaturik daude eta behar bezala kontabilizatu dira.

Horrez gainera, kontratazio-espeditente hauek aztertu ditugu:

Espedientea	Mota	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenen kopurua	Esleipenaren zenbatekoa
Rokodromoa estaltzea eta hormaz ixtea	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	145.735	3	134.528
N-111 errepidearekiko lotunean biribilgunea eraikitzea	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	215.517	2	212.934
Zezenetarako Balkoia eraikinerako altzariak hornitzea eta jartzea	Hornidura	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	29.172	3	28.709
Zezenetarako Balkoia Eraikinaren barnea egokitzeko lanak	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	380.016	10	372.378


Aztertutako lanetik ondorioztatzen da ezen, oro har, aplikatzekoak diren kontratuei buruzko legeen arabera izapidetu direla espeditenteak.

VI.7. FINANTZA-ZAMA

Gastuen aurrekontuetako 3. eta 9. kapitulueta-ko baturak 182.723 euro egiten ditu 2010ean. Kopuru horrek gastuen guztizkoren ehuneko hiru esan nahi du. 2009ko kopuruekin alderatuta ehu-

neko 71ko emendioa izan da, urte horretan maile-
gu bat hartu delako eta 2010ean egindako zorren
kitapen aurreratuaren ondorioz.

Bilakaera hau izan dute 2007-2010 bitartean:



Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastu-
en izapidetzea eta kontabilizatzea ongi egina izan
dela.

VI.8. TRIBUTU BIDEZKO DIRU-SARRERAK


Udalaren aitortutako eskubideek 5,9 milioi euro
egiten dute 2010ean; ehuneko 19ko jaitsiera izan
da aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Diru-sarrera horiek honela banatzen dira kapi-
tuluz kapitulu:

(eurotan)			
Kontzeptua	2010	2009	Aldaketa, ehunekotan
Zuzeneko zergak	1.512.850,56	1.488.876,31	2
Zeharkako zergak	197.089,89	113.664,83	73
Tasak, prezio publikoak eta bestelakoak	587.347,88	516.233,52	14
Tributu bidezko diru-sarrerak, guztira	2.297.288,33	2.118.774,66	8

Ikusten den bezala, zerga bidezko diru-sarrere-
tan ehuneko zortziko emendioa izan da, aurreko
ekitaldikoarekin alderatuta.

Ondoko grafikoan erakusten da diru-sarrera
horiek 2007-2010 bitartean izan duten bilakaera:



Zerga bidezko diru-sarrerak etengabeko behar-rakada bat izan dute aztertu diren ekitaldi hauetan zehar, 2010eko ekitaldian, industrialdean egindako zabalte bat edo eguzki-plakak ezartzea bezalako une bateko ekimenengatik izandako gorakada txikiaren salbuespena salbu.

Udalak aplikatzen dituen tasak Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak agintzen dituen tasa ertain-altuen artean daude, ondoren ikus daitekeen bezala:

Kontzeptua	2/1995 Foru Legea	Udala, 2010
Lurraren kontribuzioa		
Hiri-kontrib.	(0,1-0,5)	0,22
Landalurraren kontrb.		0,8
Jarduera Ekonomikoen Gainerako Zerga	(1-1,4)	(1,38-1,4)
EIOZ	(2-5)	4,12
Lurren balio-gehikuntza		
Karga-tasa	8 eta 20 bitartean	12,9
Gaurkotze-koefizientea	2 - 3,8 bitartean	2,2

Tasa hauetan ez da aldaketarik izan 2009koekin alderatuta. Nabarmenezkoa da Zuzeneko Zergen kapituluaren, aitortutako eskubideen ehuneko 57 hirilurren kontribuzioari eta landalurren kontribuzioari dagozkiola.

Beste balorazio-ponentzia bat egiten ez den bitartean, Udalak hirilurrei eta landalurrei aplikatzekoak zaizkien tasak bereizten jarraitzen du; ez da egokitu 2/1995az gero indarrean dagoen Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 139. artikuluan agintzen den lurralde-kontribuzioaren tasa bakkerra, eta horrela jokatzeko aukera ematen duen 20/2005 Foru Legearen xedapen iragankorrari hel-

tzen dio horretarako. Horregatik, hain zuzen, landalurren kontribuzioan 2010ean aplika daitekeen tasa (0,8), 2/1995 legeak ezarritako gehieneko tasa (0,5) baino handiagoa da.

Sarrera hauen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla ikusi da.

Aholku hau ematen dugu:

- *Albait lasterren ondasunen balorazio-ponentzia berria onartzea eta lurraren kontribuzioeko tasak indarrean dagoen araudira egokitzea.*

VI.9. BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Diru-sarrereren multzoa eta haien bilakaera ondorengo taulan ikus daitezke:

(eurotan)			
Kontzeptua	2010	2009	Aldea, ehunekotan
Transferentzia arruntak	1.513.509	1.462.264	4
Ondare bidezko diru-sarrerak	247.325	240.922	3
Inbertsio errealak besterentzea	103.021	378.103	-73
Kapital-transferentziak eta bestelako kapital diru-sarrerak	1.742.332	2.276.365	-23
Guztira	3.606.187	4.357.654	-17

Nabarmenezkoa da, 2009an Zezenetarako Balkoian obrak egiteko jasotako momentuko diru-languntzak (656.803 euro) eta haurtzaindegi berria egiteko jasotakoak (700.000 euro) kendurik, inbertsioen besterentzetik eta kapital-transferentzietatik heldu diren diru-sarrereren urritzea.

Kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har, egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

VI.10. HIRIGINTZA

Vianako Udal Planari 2001eko maiatzean eman zitzaion hasierako onarpena eta 2003ko ekainaren 11n onartu zen behin-betiko. Data horretatik hona zenbait aldaketa izan ditu planeamendu horrek. Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea Vianako Udal Planaren behin betiko onarpena baino lehenagokoa bada ere, Udal Plan hori ez dago indarrean dagoen araudira egokituta.

Hirigintzaren kudeaketa kanpoko aholkularitza baten laguntzaz egiten da; zerbitzu horrek 71.044 euroko gastua eragin zion 2010ean Udalari; Jurramendiko Mankomunitateko erakunde bati ordaindu zitzaion kopuru hori.

Ez da ageri arauzkoa den Lurzoruaren Udal Ondareari buruzko Erregistorik.

2010ean Xehetasun Azterlan egin da, baina ez da hirigintza-hitzarmen bat ere egin.

Gure aholkuak:

- *Hirigintza-planeamendua 35/2002 Foru Legearen zehaztapenetara egokitzea.*

- *Udalaren Lurzoru Ondarearen erregistroa eta inbentarioa bereizita kudeatzea, 35/2002 Foru Legean aurreikusitako helburuak bete daitezen.*

VI.11. GORABEHERAK ETA ZALANTZAK

Udala, zenbait prozedura judizialean sartuta dago; EIOZaren ordainarazpenerako oinarri zergagarriaren kalkuluarekin zerikusia dute gehienak, oinarri hori zehaztugabea baita.

VII. "NUESTRA SEÑORA DE GRACIA" FUNDAZIOA

Nuestra Señora de Gracia Fundazioa Vianako zaharren egoitza kudeatzeaz arduratzen da. 2000ko martxoan sortu zen; data horretan hitzarmen bat sinatu zen Vianako Udalarekin, Fundazio hori egoitzaren gastu guztien arduraduna dela eta Udalaren jabetzako hartarako instalazioak erabil ditzakeela zehaztuz.

Orobat zehazten da hitzarmen horretan Fundazioak aurrekontu bat, erabiltzaileei kobratzeko begiz jotako prezio publiko batzuk eta aurreko ekitaldikoko kontuak aurkeztu beharko dizkiola Udalari, hark onar ditzan.

Fundazioaren Patronatuak 12 bazkide ditu; hamabi horietatik 11 Udaletxeok dira.

Hitzarmen hori betez, bada, Fundazioaren Gobernu Batzordeak, 2011ko otsailaren 17ko bilkuran, 2010eko ekitaldiari zegozkion Emaizten Kontua, Egoeraren Balantzea eta Memoria Ekonomikoa onetsi zituen.

2010ean Nafarroako Gobernuarekin "Concerdep Programa" sinatu zen; horren arabera 27 pertsonentzako lekuak sartzen dira (22 Mendekotasun Handiko 1. eta 2. mailan eta Mendekotasun Larriko 2. mailan dauden pertsonentzat, eta bost Mendekotasun Larriko 1. mailan dauden pertsonentzat).

2010 gertatu zen nabarmenezko beste gertae- ra bat instalazioen parte bat eraberritzea eta instalazioak zabaltzea izan zen, 55.890 euroko aurrekontu batez. Inbertsio horiek egiteko, E Planetik

20.000 euroko diru-laguntza bat eta Nafarroako Kutxaren “Zuk hautatu, zuk aukeratu” programatik 17.000 euroko diru-laguntza lortu ziren.

Fundazioaren egoera-balantzea –kontu-ikuskatzea egin gabe– honela dago (eurotan):

AKTIBOA		PASIBOA	
Ibilgetua	301.560,29	Funts propioak	84.275,99
Zordunak	26.567,43	Banatzeko diru-laguntzak	74.486,34
Diruzaintza	5.729,03	Ibilgetuak erosteko hornidura	8.741,81
		Epe laburreko zordunak	66.352,61
Aktiboa, guztira	333.856,75	Pasiboa, guztira	33.856,75

Erakunde honek, 2010eko ekitaldia 2009arekin alderatuz, erakusten dituen datu ekonomiko nagusiak, kontu-ikuskatzea egin gabe, hauek dira (eurotan):

Kontzeptua	2009	Guztiaren gaineko ehunekoa	2010	Guztiaren gaineko ehunekoa	2010-2009 aldea (%)
Gastu orokorrak	187.244,21	20,59	206.506,88	19,97	10,29
Langileen gastuak.	706.558,05	77,71	809.650,62	78,32	14,59
Gastuak kontzeptuen arabera	15.430,66	1,70	17.668,26	1,71	14,50
Gastuak, guztira	909.232,92	100,00	1.033.825,76	100,00	13,70
Kuotak	871.043,45	96,28	1.000.139,42	96,74	14,82
Bestelako diru-sarrerak	26.100,97	2,89	25.067,73	2,42	-3,96
Diru-laguntzen eta horniduren emendioa	7.544,80	0,83	8.664,80	0,84	14,84
Diru-sarrerak guztira	904.699,22	100,00	1.033.871,95	100,00	14,28
Ekitaldiko emaitza	-4.533,70		46,19		

Fundazioan lan egiten duten langileei dagokiez, Comptos Ganberaren 2009ko ekitaldiko udal fundazioei buruzko 2011ko uztaileko txostenean jasotzen denez, 40 pertsona ari ziren lanean.

2010an zehar batez besteko 68 egoiliarreko okupazioa izan da egoitzan, hau da, ehuneko 100eko okupazio-indize bat.


Txosten hau auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2012ko martxoaren 15an

Lehendakaria Helio Robleda Cabezas

**ERANSKINA: UDALAREN ORGANIGRAMA
2010EKO ABENDUAREN 31N**

2010ean, Udalaren organigrama honela egituratu da:



ALKATEAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK

Vianako Udaleko Alkate-Lehendakari Gregorio Gallea Arazuri jaunak, Toki Erregimeneko legeriak ematen dizkion eskumenez, Departamentu horren aurrean azaldu, eta Zuzenbidez bidezkoen den moduan, ESATEN DU:

Comptos Ganberako Lehendakariaren 2012ko martxoaren 7ko Erabakiz, eta Udal honetako erregistroan 2012ko martxoaren 8ko dataz jasorik, Udal honek, Erabaki horri atxikita datorren Vianako Udalaren 2010eko ekitaldiaren behin-behineko fiskalizazio-txosten berri izan duela.

Horretarako ematen den epearen barruan alegazio hauek egiten dizkiola 2010eko ekitaldiaren behin-behineko fiskalizazio-txostenari

LEHENENGOA: VI. ATALA. ALDERDI OROKORRAK

Kontu Orokorrean kontu hori ulertzeko behar den informazio guztia jasotzen duen memoria bat sartzeari dagokionez, esan behar dut Kontu Orokor horretan badela, "Aurrekontuaren likidazioaren espedientea" izenburupean, kontu-ikuskaritzaren txosten bat, edukiz Memoria baten baliokidea dena; nolahi dela ere, 2011ko ekitaldiari dagokionez, Ganbera horrek berorrek emandako ereduak erabiliz ari da osatzen memoria hori.

BIGARRENA: VI.3. ATALA. LANGILE-GASTUAK

- Lan-eskatzailen zerrendan zeuden pertsonen ezin zitzaizkien eta hautatzeko zer sistema erabili zen agertzen ez den lau hilabeterako kontratazioei dagokionez, esan behar dut Lizarrako Nafarroako Enplegu Zerbitzuari eskatu zitzaiola enplegu-eskatzailen zerrenda, eta Askotariko Zerbitzuetako Arduradunak lagundu zuela langileak hautatzen, egin beharreko lanez zuen ezagutzari eta esperientziari esker, eta uda partean lan egiteko prestasuna hartu zela kontuan, uztaileko eta iraileko herriko jaiak iritsi baino lehen kontratatu behar baitira, jai horiek, goizeko zein arratsaldeko lanorduetan, erabateko normaltasunez gerta daitezzen, aurrez zenbait lan egin behar direnez. Horrelakoetan lanik gabe dauden pertsonak kontratatzen dira beti.

- Dagokien maila eta familiar dagokion laguntza jasotzen duten administrazio-kontratupeko langileei dagokionez, administrazio-kontratupeko erregimeneko kontratazioa arautzen duen 68/2009 Foru Dekretuk kontratupeko langile horiek ordainsari horiek ezin jasoko dituztela dioenez, maila eta familiar dagokion laguntzarik ez ematea ez da aplikatzekoa Nafarroako Toki Administrazio Foru Legearen 235.3 lehengo artikuluko funtzionario-estatutuaren arabera kontratatutako idazkariei eta kontu-ikuskatzaileei dagokionez.

2009ko irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuaren 11.1 artikuluan aurreikusten den administrazio-kontratupeko langileen ordainsarietatik maila eta familia-laguntza kentzeak Europako Sindikatuen Konfederazioaren, Europako Erkidegoko Industrien Batasunaren eta Enpresa Publikoen Europako Zentroaren iraupen jakineko lanari buruzko esparruakordiori buruzko 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluariaren 1999/170 EBren Zuzentarauan, Espainiako zuzenbidera (kasu honetan foru legeetara) ekarri ez denez zuzenean aplikatzekoa denean jasotzen den ez diskriminatze printzipioa urratzen du, eta horrenbestez, arauen hierarkiaren printzipioaren indarrez, ez da aplikatu behar goragoko mailako arau bat urratzen duen maila apalagoko arau bat. Azalpen-txostena eranskin gisa sartu da.

HIRUGARRENA. VI.10. ATALA. HIRIGINTZA

- Hirigintza-planeamendua 35/2002 Foru Legearen zehaztapenetara egokitzeari dagokionez, esan beharra dut Planak egokitze agindua Foru Legearen 38. xedapen iragankorrean dagoela jasota eta hiru urteko epea ematen dela horretarako Foru Legea indarrean jartzen denetik hasita.

Ohitura da Udalek beren planak Foru Legea zuzenean ez egokitzea, baizik eta, horren ordean, egokitzapen hori planeamendu orokorra berrikusteko edo planeamendu orokor berri bat idazteko prozedura zabalago baten barruan egitea.

Udal hau Nafarroako Gobernuak lege hori garatzen duen erregelamendua noiz tramitatuko zain dago, gainera, tramitazio bakar batean bi araudi horietara egokitze (1. azken xedapena).

Praktikan, betebehari hori ez betetzea berez mugatzen da, Foru legeak berak ezartzen baitu indarrean dagoen planeamenduari dagokionez izango duen aplikazio-erregimena:

- Foru Legean aurreikusten den hirigintza-erregimena zuzenean aplikatu daiteke indarrean dauden planeamenduetan aurreikusita dagoenean (1. xedapen iragankorra) eta baita determinazio egituratzaile eta xehekatuetarako ezartzen duen araubidea ere (3.3. xedapen iragankorra).

- Orain arte onartu diren Planaren garapenerako planeamendu guztia eta aldaketa guztiak foru lege horretara egokitu dira, 3. xedapen iragankorren 2. eta 3. puntuetan exijitzen den bezala.

Udalaren Lurzoru Ondarearen erregistroa eta inbentarioa bereizita kudeatzeari dagokionez, esan beharra dut ondare hori halakotzat dagoela kalifikatuta, behar bezala, Ondarearen Inbentarioan eta hemendik aurrerako ekitaldietan bereizirik kudeatuko dela.

Viana, 2012ko martxoaren 13an

Alkate-Lehendakaria: Gregorio Galilea

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZ-
TURIKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK
EMANDAKO ERANTZUNA**

Vianako Udaleko Gregorio Galilea Arazuri alkatetik jaunak behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak jaso eta aztertuta, alegazio horiek txosten horren edukia aldatzen ez dutenez, txostena behin betikotzat jo dugu.

Iruñean, 2012ko martxoaren 15n

Lehendakaria Helio Robleda Cabezas
